

1999  
2019

20URTEYEARS AÑOS



# “ZINEKO MUSIKARIK ONENA” FILM SYMPHONY ORCHESTRA-REKIN EUSKALDUNAN MAIATZAREN 23AN

**Kontzertuan entzuleek aho zabalik geratuko dira,  
Constantino Martínez-Orts zuzendari  
karismatikoaren eskutik etorriko diren garai  
guztietako soinu banda onenekin**

*Bilbon, 2020ko urtarrilaren 7an*

Film Symphony Orchestra (FSO) fenomenoak agertokietara itzuliko da, jarraitzaileek hala eskatuta, maiatzaren 23an Euskalduna Jauregira helduko den birarekin. “Zineko musikarik onena” kontzertuak film hauetako lanak izango ditu: “Regreso al futuro”, “Aladdin”, “Piratas del Caribe”, “Avengers: Endgame”, “Interstellar”, “Amélie”, “Cómo entrenar a tu dragón”... Zineko musikan espezializatutako Constantino Martínez-Orts (Madrid, 1977) maisu, konpositore, orkestra zuzendari eta musika dibulgatzailearen eskutik, FSO orkestra 50 kontzertu baino gehiagoko bira baten barruan iritsiko da Euskaldunara, emanaldi bakarrarekin. Maiatzaren 23an, 19:30ean, izango da, Euskaldunako Auditoriumean.

## **Superheroiak, piratak, jainuak eta fantasiako izakiak**

Bere esentziari leial izanda, Martinez-Ortsek Marvelen estiloko programa diseinatu du, ikus-entzuleen aldeko jarrera irabazteko borrokatuko diren superheroiekin eta bilauekin. Historiako superheroi onenetako batzuk uztartzen dituen “Avengers: Endgame” laneko soinu banda interpretatuko dute. Gainera, FSOk Disneyren



MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
prentsa@euskalduna.eus

1999  
2019

20URTEYEARS AÑOS



“Aladdín” musikalaren mundu magikoan murgilduko ditu ikus-entzuleak. Cocktaila osatzeko, ikus-entzuleak “bahitu” egingo dituzte, Jack Sparrowrekin batera Perla Beltzean nabigatzeko, Klaut Badelt Hans Zimmerren ikasleak konposatutako “Piratas del Caribe” laneko soinu bandarekin, eta “El secreto de la pirámide” bilatuko dute, Bruce Broughtonen jatorrizko soinu-bandak gidatuta.

FSOren bira ez litzateke benetako bira izango izaki fantastikoen dosi on bat sartu barik. Horretarako, Constantino Martinez-Orts “Jurassic World”-eko dinosauro basatien bila joan da. Eta munstro maitagarriekin jarraituz, txikienek “Cómo entrenar a tu dragón” lan dibertigarriaren soinu bandaz gozatzeko aukera izango dute. Eta nostalgikoenentzat, FSOk “Willow”-en soinu-banda interpretatuko du.

Askorentzat “Regreso al futuro” filmarekin (Alan Silvestriren partiturak) hasi zen zientzia fikzioa, Christopher Nolanen eta bere “Interstellar” film ikonikoaren eskutik ere iritsiko da, Hans Zimmerrek konposatu zuen musikarekin. Azken batean, ikus-entzuleek, ia 30 urteko tarteak bananduta egon arren biak ere maisu-lan bikain diren bi soinu-banda entzungo dituzte.

Bidean, “Historiako western onena” omen denetik igaroko da saioa, Sergio Leoneren “El bueno, el feo y el malo” klasikoa. Martinez-Orts musikagilea zineko musika ezagutzera eraman zuen Williamsi ere egingo dio keinua FSOk. Berarekin, Euskaldunako ikus-entzuleek “A.I. Inteligencia Artificial” laneko etorkizun hurbilera eta galaxia urrun batera bidaiatuko du, sagako “Solo: una aventura de Star Wars” azken filmerako 2018an idatzi zuen abesti bakarra interpretatuz. Eta “Amélie” harribitxiak ere lehentasunezko lekua izango du bira honetan.

Sarrerak salgai daude jadanik [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean eta ohiko kanaletan, 36 eurotik aurrera (kudeaketa gastuak barne).

## **Elkarrizketak eta informazio gehiago:**

Ruth Gallo



MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
prentsa@euskalduna.eus

1999  
2019  
20URTEYEARS AÑOS



FSO - Marketina eta Komunikazioa  
[marketing@filmsymphony.es](mailto:marketing@filmsymphony.es) // 658541268



MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
[prentsa@euskalduna.eus](mailto:prentsa@euskalduna.eus)